



Balorezko Proposamena

SporTracker-en balio nagusia erabiltzaileari eskaintzen zaion helburu fisikoen jarraipen pertsonalizatua eta motibagarria da. Aplikazioak entrenamendu teknikak modu argi eta bisualean erakusten ditu, lesioak saihesteko eta errendimendua maximizatzeko, eta, horrez gain, dieta-plan pertsonalizatuak eskaintzen ditu, gantzak murrizteko, muskulu-masa handitzeko edo osasun orokorra hobetzeko. Eskaintzen duen balioa kuantitatiboa eta kualitatiboa da; kuantitatiboa da erabiltzaileak jasotzen duen kaloria-kontrola eta ariketa kopuru zehatza, eta kualitatiboa, berriz, aplikazioaren diseinua, erabilerraztasuna eta erabiltzaile-esperientziarekin lotuta dago. Aplikazioaren indarra ez da produktu bakar bat, baizik eta erabiltzaileari eskaintzen zaion kontzeptu osoa eta esperientzia orokorra. SporTrackerrek aukera ematen dio erabiltzaileari bere helburuak modu jarraituan betetzeko, aurrerapena egutegi interaktibo batean ikusiz, eta horrek aplikazioa aukeratzeko arrazoi nagusietako bat bihurtzen du. Gainera, komunitate interaktiboek eta erronka pertsonalizatuek erabiltzaileen motibazioa handitzen dute. Eskaintza hau entrenamendu-plan pertsonalizatuek, dieta-gomendioek, jarraipen kuantitatibo eta kualitatiboak eta feedback zuzenak osatzen dute, erabiltzailearen inplikazioa eta konpromisoa sustatuz. Halaber, teknologia aurreratuaren erabilerari esker, erabiltzaile bakoitzarentzat esperientzia pertsonalizatua eskaintzen da,

merkatuaren segmentu desberdinetara egokituz. Diziiplina anitzeko laguntza ere eskaintzen da, entrenatzaileak, nutrizionistak eta teknologia-adituak elkarlanean arituz, erabiltzailearen osasuna hobetzeko eta helburu fisikoak modu eraginkorrean lortzeko, aplikazioa etengabe eguneratuz eta merkatuaren beharrei erantzunez.